



# ARTE ESTILOEN HISTORIA

2015-2016

ARO GARAIKIDEKO ARTE ESTILOEI BURUZKO

PRAKTIKA

Izena:

Data:

Gradua:

## GELAKO PRAKTIKAREN ZEREGINA

1. PRAKTIKAREN XEDEA: Aro Garaikidea.
2. PRAKTIKAREN HELBURUAK: Aro Garaikideko estiloen ezaugarrien bereganatze maila ezartzea.
  - a. Oinarrizko ezaugarri estilistikoak ezagutzea.
  - b. Muga kronologikoak ezagutzea.
3. LANDUKO DITUGUN GAITASUNAK:
  - a. Ikaskuntza autonomoa lantzea.
  - b. Aro Garaikideko artelanik adierazgarrienetarikoen funtsezko ezaugarriak ezagutu eta barneratu, arte estiloak abiapuntu hartuz.
  - d. Adierazpen idatzia lantzea, hiztegi eta kontzeptu aproposak erabiltzea.
4. LAN PROZEDURA:
  - a. Ikas materiala hartu eta birpasatu.
  - b. Praktika dokumentua eskuratzea eta zeregina zein helburua ulertu.
  - d. Xedea idatziz burutzea
5. EBALUAKETARAKO IRIZPIDEAK:
  - a. Puntueltasuna.
  - b. Parte-hartzea.
  - d. Edukien zuzentasuna.

## 1. ESTILOEN KRONOLOGIA: ONDOKO TAULA BETE.

<b>Inpresionismoa</b>	1874-1886
Neoklasizismoa	<b>1745-1815</b>
<b>Erromantizismoa</b>	1815-1848
Postimpresionismoa	<b>1886-1906</b>
Errealismoa	<b>1848-1874</b>
<b>Fauvismoa</b>	1905-1907
Espresionismoa	<b>1905-1914</b>

## 2. ONDOKO ARTISTA HAUEI DAGOKIEN ESTILOAN KOKATU.

Henri Matisse (1869-1954): **Fauvismoa**

Caspar David Friedrich (1774-1840): **Erromantizismoa**

Claude Monet (1840-1926): **Inpresionismoa**

Antonio Canova (1757-1822): **Neoklasizismoa**

Vincent van Gogh (1853-1890): **Postimpresionismoa**

Edvard Munch (1863-1944): **Espresionismoa (Lehenago Belaunaldia)**

Oskar Kokoschka (1866-1990): **Espresionismoa (Hirugarren Belaunaldia)**

Gustave Courbet (1819-1877): **Errealismoa**

## 3. AURREKO ZERRENDATIK HIRU ARTISTA AUKERATU ETA HAIEN ARTELAN BAT AIPATU.

a) **Matisse (Emakume kapelarekin) Friedrich (Bidaiaria hodeien itsaso bati begira), Monet (Inpresioa, egunsentia).**

b) **Canova (Paulina Borghese, Venus garailearen itxuran), Van Gogh (Van Goghen logela), Munch (Oihua).**

d) **Kokoschka (Haizearen emaztegia), Courbet (Ornanseko lurperatzea).**

#### 4. IRUDI HONEN EZAUGARRI ESTILISTIKOAK ADIERAZI:



**Estiloa: Impresionismoa.**

**Teknika eta gaia, modernotasunaren adierazle.**

**Gaia: une edo instate bat, egunsenti lanbrotsua.**

**Teknika bat-batekotasunaren adierazle: Pintzelkada txikiak, koma formakoak (solteak eta arinak).**

**Kolorea eta argia dira nagusi, marrazkia desagertuz.**

**Koloreen teoriaren erabilera (kolore osagarriak, urdina eta laranja).**

**Atmosfera lanbrotsua eta argiak uraren gainean sortzen dituen efektuak irudikatzen ditu. Perfekzio formalak eta perspektiba tradizionala baztertuz doaz.**

**Errealitate edo naturarekin zuzenean lan egiten dute. Aire zabaleko lanak, estudiotik kanpo. Berregin gabeko lanak.**

**Errealitatea argi-tonuen bidez irudikatzen da.**

**Argi-ilunak baztertzen dira eta itzalak koloreztatzen dira.**

**Kolorea, objetuen ezaugarri erlatiboa, argiaren arabera.**

**Artista eta begiaren arteko elkarrizketa.**

5. BI IRUDIAK ERKATU ETA TAULA BETE:



Neoklasizismoa	Erromantizismoa
<p>Ereduak</p> <p><b>Berpizkundeko maisu handiak; Antzinatea, eskultura klasikoa.</b></p>	<p>Ereduak</p> <p><b>Barrokoa (Rubens)</b></p>
<p>Lerroa eta Kolorea</p> <p><b>Marraskia da nagusi; ingeradak ondo definituak; Kolore hotzak</b></p>	<p>Lerroa eta Kolorea</p> <p><b>Kolorea nausi (kolore biziak); ingeradak zorrotasuna galduz doaz.</b></p>
<p>Pintzelkadak</p> <p><b>Ezkutatzen dira (ez dira nabaritzen)</b></p>	<p>Pintzelkadak</p> <p><b>Nabariak dira, artistaren “jestua” adierazten da.</b></p>
<p>Konposizioa</p> <p><b>Bateratuak eta egonkorra, forma geometrikoetan oinarrituta.</b></p>	<p>Konposizioa</p> <p><b>Konplexua eta dinamikoa (diagonala).</b></p>
<p>Argia</p> <p><b>Uniformea, kontrasterik gabe.</b></p>	<p>Argia</p> <p><b>Argi adierazkorra, argi-tzalen jokoak.</b></p>
<p>Gaia eta helburua</p> <p><b>Historikoa (Erroma); gai morala, eredugarria (gizartearen ongizatearen alde).</b></p>	<p>Gaia eta helburua</p> <p><b>Literarioa (orientalismoa), bere garaiko idazlea (Lord Byron); muturreko gaia, emozioa eta adierazkortasuna.</b></p>



## 6. ONDORENGO GALDERAK ERANTZUN:

a) 1848. urtean Europako hainbat herrialdetan iraultzak piztu ziren. Egoera horren aurrean, zein izan zen artistaren jarrera? eta estiloari dagokionez, zer aipatuko zenuke?



**1848.urtea: herrien udaberria edo iraultzen urtea (aldaketa politiko eta sozialak, korrante filosofiko eta politiko berriak).**

**Gizarte-klase berria: langileria. Indar proletarioarekin eta klase borrokarekin batera, artista askok arazo politiko eta sozialen aurrean jarrera hartu zuten.**

**Artista, sozialismo eta langileriaren arazoekin identifikatu zen eta artearen gaiak problematika sozialaren arabera jorratu ziren (langileak, nekazariak, etab.)**

**Errealismoa, protesta-mugimendu bat da.**

**Tradizioari aurre egin zioten: idealismo eta edertasun kontzeptuari, orain "itsustasuna" agertzen da artean.**

**Egiatasuna: pertsonaiak errealismo osoz irudikatzen ziren.**

**Garaikidetasuna: mundu garaikidea gai bakarra.**

**Konpromiso soziala: errealitate guztiek bere lekua daukate artean.**

**Konposizio berriak, berehalakotasuna transmitituz.**



## **b) Ondorengo ideak artista eta estilo batekin erlazionatu:**

- Edozein forma naturala kono, zilindro eta esferaren bidez irudikatu daiteke.

### **Paul Cézanne - Postinpresionismoa.**

- 1905. urtean Udazkeneko Saloian Louis Vauxcelles kritikoa artistaren lana ikusterakoan honako hau esan zuen: *Donatello piztien artean.*

### **Henri Matisse - Fauvismoa.**

- *"Muy pronto descubrí que los seres humanos son "feos": los animales me parecían más hermosas, más puros".*

### **Franz Marc - Espresionismoa (Zaldizko Urdina).**

- Pariseko gaueko bizitza eta bohemioaren mundua irudikatu zuen.

### **Henri Toulouse-Lautrec - Postinpresionismoa.**

- Gai berdinen inguruan koadro-sailak egiten zituen, argiaren eta atmosferaren aldaketak gauzak nola eraldatzen zituen aztertzeko.

### **Claude Monet - Impresionismoa.**

- Paisaiak landu zituen batez ere, momentu indartsuak eta biziak aukeratuz (ekaitzak edo suteak, adibidez).


### **William Turner - Erromantizismoa.**

- Eskultura barrokoa gaitzestu zuen (emozioa, sentimendua eta pasioa alde batera utziz), espresibitate eta mugimendu gabeko lanak sortuz.

### **Bertel Thorvaldsen - Neoklasizismoa.**

## 7. BI IRUDI HAUETATIK BAT AUKERATU.

J.A.D. Ingresek eta Édouard Manetek tradizioarekin haustura bat ekarri zuten, zertan datza haustura hori?



### Neoklasizismoa - J.A.D. Ingres.

Neoklasizismoan antzinate klasikoko gaiak eta ereduak lantzen ziren batez ere. Gainera, edertasuna eta perfekzio formalari lehentasuna ematen zitzaion, hau, da, giza-gorputz ideal bati. Nahiz eta biluziak agertu, normalean gai mitologikoetan oinarritzen ziren. Ingresek, ostera, klasizismoa modu pertsonalean berrikusi zuen. Bere biluziak edertasun kanon pertsonal batean oinarritua daude, emakumearen edertasun ideal berri bat erakutsiz: proportzioak handitzen ditu, kanon klasikoa alde batera utzi, giza gorputza deformatzen du, gorputz ez-naturala eta “akats anatomiko” ugari daude. Gainera, Greziar moda ahaztuta, dekorazioa beste mundu eta estetika bat iragartzen du: exotismoa, erromantizismoaren estetika aurreratuz.

### Modernotasuna (inpresionismoa) - Édouard Manet.

1863.urtean Édouard Manetek “Belarretan bazkaltzen” koadroa aurkeztu zuen akademiaren aurrean; epaimahaikoek atzera bota zuten lana, beste hainbaten artean. Pintoreen protesten aurrean Napoleon III.ak “errefusatuen saloia” antolatzeko baimena eman zuen. Teknika eta gaiaren aldetik akademiari eraso zuzena da: gai aldaketa bat dago (bere garaiko emakume bat biluzik bi gizon jantzien alboan). Nahiz eta tradizioan oinarritutako lana izan (artearen historian zehar, hainbat aldiz irudikatu dira emakume biluziak gizon jantzien artelana, baina alegoriak ziren), biluziaren perfekzioa formala eta idealizazioa desagertzen da. Mitologian edo historian oinarritutako gaiak desagertzen dira, biluzia ez da ezertan oinarritzen. Artearen modernotasunaren beharra eta artistaren askatasuna aldarrikatzen du.